

1.6 Zulagailuak

Tailerrean, zutabe eta eskuzko zulagailuak aurkituko ditugu

Zutabe zulagailua

Zutabe zulagailua, zulagailu estatikoa da.

Zuloa zehatzago egin daiteke eta barautsaren diametroa zein zulatu nahi dugun materialaren arabera, zulagailuaren abiadura moldatu daiteke. Desabantaila bezala, aipatu ezin dela zulagailua mugitu eta leku ezkutuetara ezingo dela gerturatu.



Eskuzko zulagailua.

Zulagailu eramangarria da, ez da zutabe zulagailua bezain zehatza, potentzia gutxiago dauka eta ezin da abiadura behar bezala egokitu, baina eramangarria denez, ibilgailuraino gerturatu daiteke lana errazteko. Bateriazkoa nahiz sarean konektatzekoa izan daiteke.

1.7 Zulatzeke eman beharreko urratsak

- ✓ Piezan, zuloen posizioa markatu, trazadore eta erregelarekin.
- ✓ Granetearekin zuloaren kokagunea markatu.
- ✓ Tornuzilean pieza lotu.
- ✓ Barautsa zulatzeke makinan muntatu, biratzerakoan zentrokidetasuna gordetzen duela egiaztatuz.
- ✓ Barautsaren punta, aurrez zuloaren kokagunea adierazteko granetearekin egindako markaren arabera lerrokatu.

- ✓ Barautsaren punta granetearekin egindako markan jarri, eta zulatzen hasi, zulatu behar den materialaren kontra presioa eginez.
- ✓ Presioa kontrolatu eta zuloak norabide egokia hartu duela egiaztatu.
- ✓ Zuloa diametro handikoa baldin bada, diametro txikiagoko barautsak sartuaz, zulagailuak egin beharreko indarra murriztuko dugu, *adibidez 11mmko zulo bat egiteko, komenigarria izango litzateke aurretik 4mmko eta 7mmko barautsak sartzea*
- ✓ Behin zuloa egin ondoren, eskuzko zulagailua kendu.
- ✓ Barautsa kendu eta zuloa alakatu
- ✓ Pieza garbitu.

Barautsaren abiadura

Barautsaren abiadura orientagarriak altzairua zulatzeko, beti ere zulagailuak ematen dituen aukeretara egokitu beharko gara abiadura aukeratzerako orduan.

Barautsaren diametroa (mm)	Abiadura (rpm)
3	1275
4	
4.2 (m5 eko harientzat)	1000
5 (m6)	765
6	600
6.8 (m8)	475
7	
8	
8.5 (m10)	425
9	
10	
10.2 (m12)	320
11	
12 (m14)	